



ARAUDIA 2017

7 ko FUTBOLA (Partidetza ibilbidea)

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Futbol Federazioarekin lankidetzan, **EUSKADIKO XXXVI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK** antolatuko ditu. Gasteizen, Betoñoko Udal futbol zelaietan, 2017ko maiatzaren 27 eta 28an eta ekainak 3an.

1. JOKO SISTEMA

Kategoria: neska infantilak, 2003 eta 2004 urteetan jaioak.

2. TALDEEN OSAERA

Gehienez 15 jokalariz izango dituzte taldeek, aktan jasotakoak, eta horietaz gain ordezkari bat eta entrenatzailea ere izango dituzte. Bost jokalariz egon behar dira, gutxienez, partidari hasiera eman ahal izateko; halere geroago etortzen diren gainontzeko jokalariek jokatzeko aukera izango dute. Talderen bat 5 jokalariz baino gutxiagorekin geratzen denean partida bukatutzat joko da.

Taldeek jantzien kolorearen berri emango diote antolaketari izena ematerakoan, bi talde ez daitezkeen bat etorri partida egunean.

3. JOKOAREN IRAUPENA ETA ALDAKETAK.

35 minutuko bi zatitan banaturik dago partida eta 10 minutuko atsedena da. Zati bakoitzak 17 minutu eta 30 segundoko bi tarte izango ditu. Beraien artean atsedetik gabe, aldatetako egiteko baliagarriak izango dira. . Jokalariz bakoitzak denbora bat jokatu beharko du gutxienez. Salbuespenak hauek izan daitezke:



- Lesionatutako jokalaria.(Jokalari batek atentzioa jaso arren, aldaketa egiteko beharrik ez dago, jokoa bi minutuko edo gehiagoko etena ematen ez bada).
- Kanporatutako jokalaria.

Jokalariak zelaia erdigunetik sartuko edo irtengo dira. Atezainak beste edozein jokalariri utzi diezaiolake bere postua, epailea aurretik jakinaren gain jarri gero; atezainaren elastikoa jantziko du jokalaria horrek. Jokalari batek txartel gorria jasoz gero, ezingo du jokatu partida amaitzeko geratzen den denboran; kanporatzea partidako azken hamar minutuetan gertatu ezean, horren ordez beste jokalaria bat sartuko da zelaigunera.

4. TXARTEL HORIA ETA TXARTEL GORRIA.

Jokalariaren jokabide ez zuzena edo ez duina falta arintzat jotzen badu epaileak, txartel horia erakutsiko dio eta zelaitik botako du denbora baterako (bi minuturako). Behin bi minutuak igaro ondoren, jokalaria hori zelaira itzuli daiteke epaileak baimena ematen dionean.

Epaileak txartel gorria erakutsiko dio eta zelaitik botako du jokalaria honako kasu hauetan: bere ustez, jokalaria jokaera bortitza duenean; joko zakar larriaren errudun denean; hizkera zikina edo iraingarria erabiltzen duenean; edo ohartarazpen bat jaso duen edo aldi baterako kanporatua izan den jokalaria jokaera ezegokia izaten jarraitzen duenean.

5. ZIGORRAK

Egozpenaren aurrean:

- Egotzitako jokalaria ezin izango du bere taldearekin lehiatu, honek jokatzen duen hurrengo partidari.
- Bere taldea jokalaria bat gutxiagorekin geratuko da partida irauten duen biartean.
- Egotzitako jokalaria ordezkatu ahal izango dute taldeak jokatzen duen hurrengo partidari.



6. JOKOZ KANPO.

Jokalari bat jokoz kanpoko posizioan egongo da, aurkako taldearen 13 metroko gunen barruan egonda ateko marritik baloia baino gertuago badago, jokalaria eta aipaturiko marren artean aurkako taldeko bi jokalarik edo gehiago egon ezean.

7. FALTAK NOLA GAUZATU. ZIGOR JAURTIKETA.

13 metroko marritik kanpo adierazitako faltak jaurtiketa libre batekin zigortuko dira. Falta horiek zuzenean jaurtiko dira egindako leku beretik, zuzenean puntu bat lortzeko aukera emanez taldeari. Aurkako jokalariek bertatik 6 metroko distantzia minimora egon beharko dute.

Jokalariek bere taldearen 13 metroko gunen barruan falta eginez gero, epaileak penaltia adieraziko du eta ekintza horren larritasunaren arabera zigortuko du jokalaria, futbol hamaika jokoko arauak aplikatuz.

8. ARAUZKO DENBORA IGAROTZEAN.

Penalti-puntutik bost jaurtiketako txanda bat egingo du talde bakoitzak, penaltia botatzeko bi taldeetako jokalariek txandakatuz. Bost jaurtiketak egin ostean berdinketa badago, penaltiak jaurtitzen jarraituko dute talde batek hutsegin eta besteak sartu arte.

9. BALOIA

4 zenbakikoa izango da baloia, honako ezaugarri hauek dituenak. Berotzeko baloia taldeak ekarri beharko dituzte.

10. ZELAIA

Txapelketaren programan azaltzen den arabera.



11. JOKO ARAU OSAGARRIAK.

Aipaturiko arauak aurreikusten ez dituzten egoeretan futbol 11ko arauak aplikatu.

12. KIROL SARIAK.

Lehenengo hiru sailkatuentzako garaikurra.

13. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

14. AZKEN OHARRA.

Araudi honen barruan aurreikusirik ez dauden egoeretarako honako hauek izango dira kontutan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2017ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2017ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVI. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2017ko otsailaren 2ko EBAZPENA, 2017ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVI. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f) Futboleko Euskadiko Federazioaren araudiak dioena.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeror, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.